



Ander Gortazar Balerdi
Arkitektoa

Smart gainbehera

Hubert Robert pintore frantsesak Italian eza-gutu zituen Piranesi eta bere hondakinen margo famatuak. Frantziara itzuli zenean, XVIII. mendearen hondarretan, Louvre museoko Galeria Nagusia berrantolatzeko ariketa egin zuen, horretarako bi koadro oso antzeko margotuz. Batetik, Louvreko Galeria Nagusiaren antolaketa-ren proiektua, non argiztapen zenitala duen korridorea ageri den, eta bisitari baino kopia-tzaile gehiago. “Jusqu’ici tout va bien”, 10. pisutik zure burua bota eta 3. pisu paretik pasatzen zarenean bezala. Bigarren koadroan dator talka, bere disei-nuaren hondatzea aurreikusi baitzuen, korridore bera irudi-katuz baina guztiz suntsitua, Louvreko Galeria Nagusiaren hondarren alegiazko ikuspegia margolanean.

Berri samarra da Ruin Porn (hondarraren pornografia) kontzeptua, baina mendeak ditu hondakinei diegun berezko lilurak. *Vanitas vanitatum omnia vanitas* [Eccl. 1:2;12:8], de-na da iragankorra –heriotza izan ezik, bistan dena– eta hon-dakinek ederki irudikatzen dute hori.

Baina eraikin hondarrei lilura badiegu, are handiagoa die-gu hiri hondarrei, gizartearen iragankortasuna azpimarra-tzen baitute haren kolapsoa iradokiz. Hubert Robert garaiki-dea Walking Dead telesaileko zuzendari izan zitekeen lasai asko, eta Giambattista Piranesi The Last of Us bideo jokoaren garatzaile.

Muturrera joan beharrik gabe, eta hiri hondakinen ikuspe-gi apokaliptikoak alde batera utzirik, uzku-tzen diren hiriei buruz hitz egin genezake. Eta oraingoan, adibide anekdotiko-ez baino, errealitate orokortu batez. Shrinking City kontzep-tua (uzkurtzen den hiria) biztanleria galera handia izan du-

ten hiri dentsuak definitzeko erabiltzen da. Hiri hauen azpie-gitura biztanle kopuru handiago bati erantzuteko pentsatua zegoenez, azpiegitura horren mantenua arazo bilakatzen da biztanleria esperotakoa baino askoz txikiagoa denean.

“Detroit”, esango duzu akaso. Michiganeko hiria baita adi-bide paradigmaticoa, baina ez bakar-ra. Desindustrializa-zioak, American Way of Life suburbanoak eta AEBetako hego-aldeko estatuek osaturiko Sunbelt (eguzkiaren gerrikoa) delakoaren lehiakortasunak azal dezake Detroiten uzku-tzea; ez ordea New Orleans, Leipzig, Lodz edo Muroran hirie-na.

Hondamendi naturalek bortizki uzkurrazazi dezakete hiri bat, itzuli ezin direnei itzuli nahi ez dutenak gehitu behar zaizkienean, Louisianako hiria kasu. Leipzig eta Lodz pos-tsobietarren kasuan sistema kapitalistaren norgehiagokan galtzaile izateak ekarri zien uzku-tzea; Muroran japoniarre-an, aldiz, isila eta mantsoa da uzku-tzea, tantaz tantakoa, he-rritarren hileta elizkizunen erritmo konstantearen arabera-koa. Baiki, dena da iragankorra, heriotza izan ezik.

Hiri antolakuntza -gizartearen ia aspektu oro bezala- haz-kunde prozesuen inguruan, are menpe, oinarritu izan da historikoki. Izan al liteke uzku-tzte fisikoa alternatiba, hazkunde infinituaren mantrari ere hondakin zantzua hartu diogun garaiotan? Batzuek Smart Growth (hazkunde adimentsua, zentzuzkoa, argia) kontzeptua darabilten ga-raiotan, hainbatek kasik nahiago du Smart Decay itxurazko oximorona. Smart gainbehera, ez ote den txikitzen jakitea ez desagertzeko irtenbide bakarra. •



ILUSTRAZIOA: ANDER GORTAZAR BALERDI